

# ESKARA LA KAKATUA? Ahozketasuna eta aditasuna



**Ansorena Miner, Jose Ignazio**  
**Musikaria**

Egun on, adiskideok! Ahalegintxo bat egingo dut goizeko ordu hauetan sustorik gabe esna zaitezten, esperantza handirik ez dudan arren.

Jardunaldi hauen hariari men eginez, kontutxo batzuk aipatu nahi dizkizuet: batez ere, zein garrantzitsua den hizkuntzaren ahozko erabilera aberats eta jostakina hurrekin, beraien heziketan eta euskararen etorkizunean. Eta horren inguruan galdera batzuk airean zintzilik geratzea lortuko banu, pozik geratuko nintzateke. Zuen laguntza behar-kut, ordea. Aditasun apur bat jartzea eskatuko dizuet. Ea lortzen dugun.

## 1. AHOZKOTASUNAREN GARRANTZIA

*Han doa gizona Bilboko kaleetan barrena, kezkatuta. Ezkontz urteurrena dute eta oraindik ez dio emazteari erregaliarik erosi. Emazteak, ordea, garrantzi handia ematen dio kontu horri. Eta hara non, animalien denda baten paretik pasa den eta kakatua eder bat ikusi duen. "Arraioa, gustatuko litzaioke kakatua hori nire Maria Jexuxi!. Garestia izango da, baina... Tira, galdetu egingo dut, agian eros niezaioke eta". Berehala sartu da dendan eta saltzaileari galdetu dio:*

—¿Es cara la cacatúa? (Eskara la kakatua?) —saltzaileak barkamen eskaera gisan erantzun:  
—Disculpe, pero no hablo vascuence.

Zer aurkitu du saltzaileak gaztelaniazko esaldi horretan gizona euskaraz ari zela uste izateko? Esaldiaren sonoritatea noski. Hanbeste "k" jarraian, hainbeste "a", "tua" amaiera hori... Maiz nabarmenago gertatzen baitzaigu sonoritatea, hizketaren beste edozein alderdi baino.

Ahokotasunaren balioa norainokoa izan daitekeen neurtzeko balio dezake pasadizo horrek. Sonoritateak ulermena eragozteko adinako garrantzia izan dezake hizkuntzaren erabileran. Hala ere, hori balitz duen garrantzi guztia, eskasa izango litzateke.

## **2. AHOZKOTASUNA AFECTIBITATEAREKIN LOTZEN DA BIZITZA OSOAN**

Hizkuntzaren errealitatea haur batentzat hizketa da, ez dago besterik. Normalean horik dator pertsona batek hizkuntzarekin izan dezakeen lotura afektiboa, haurretan entzun, gozatu edo jasan duen hizketatik. Txirri, Mirri eta Txiribiton gure pailazo taldeko abesti batek honela kantatzen du:

SEINTXOA IZAN NINTZEN,  
JAIOBERRIA,  
EZ GOGORATU ARREN,  
EZ DUT AHANTZIA.  
AITAREN LAZTANTXOAK,  
AMAREN IRRIAK,  
HOR DAUDE,  
ORAINDIK,  
NIGAN BIZIAK.

"Ez gogoratu arren, ez dut ahantzia". Horretan dago gakoa hurrei dagokienez. Helduok, edo *kaskatuok* hobe, sarri uste izaten dugu haurrak ergelak direla. Baina ez da horrela, gu bai ergelak. Beste tankera bateko adimena dute. Eta hori *guri* kostatzen zaigu ulertzen. Oraindik harrokeria intelektualaren umeak gara: *bi gehi bi beti dira lau* esaten ohi dugu sarri ponpoxo-ponpoxo. Matematikek, ordea, erakutsi digute ez dela horrela. Zein oinarritan ari zaren, bi eta bi... berrogei izan daitezke.

Haurrek beste modu bateko ulermena dute, beste oinarri batzuk dituzte. Ulertzen dituzte kontu guztiak, ez, aldiz, xeheki eta era arrazionalan adierazi ahal izateko moduan. Baina dena entenditzen dute. Eta kontu garrantzitsuak, *ez gogoratu arren, ez zaizkie ahazten* bizitza osoan.

## **3. HAURREK HIZKUNTZA BATEN SONORITATEA ONDO ULERTZEN DUTE. BAINA ADITASUNIK EZA ZABALTZEN ARI DA**

Haurrek hizkuntza baten sonoritatearekin lotzen diren kontu guztiak helduok bezain ongi ulertzen dituzte. Edo hobeto. Hitzak, kontzeptuak agian ez dituzte ulertuko. Baina sonoritatea bai.

Ume txikiek inor hurbiltzen zaienean oso erantzun desberdinak izaten dituzte: batzuekin negarrez, besteekin barrez, besteekin adi-adi zelatan.... Zergatik? Ahotsa eta doinuagatik, neurri handi batean.

Helduok, aldiz, galduxez izaten dugu entzumenaren eta aditasunaren ahalmena.

*Artzaia artaldearekin dago goi-mendietako zelai batean. Ikusi du mendizale bat hurreratzen zaiola, apain-apain mendirako jantzita. Berarenganaino iritsi denean, elkar agurtu dute:*

—Egunon Jainkoak —mendizaleak.

—Eup ! —artzainak.

—Ederki bizi zarete hemen mendian.

—Hobeto zuek behe horretan. Autoak, tabernak, telebistak, pasealekuak... Denetarik daukazue. Ez dut ententitzen zeren bila etortzen zareten hona.

—Ai, gizona! Hemengo isiltasuna, horixe maite dugu, hemengo isiltasuna.

*Elkar agurtu ondoren, mendizaleak alde egin duenean, artzainak berekiko pentsatu du:*

—Kaletar hauek zeharo daude burutik nahastuta. Hemengo isiltasuna! Hemen zarata besterik ez dago eta: erreka marmarioa, abereen marruak, txorien txorrotzioak, kil-kerraren kirrika, haizea eta hostoen xafladak... Gortuta edo erotuta.

Noski, aditzeko, aditasuna behar da. Horixe falta zaigu kaletar heldu askori. Eta, zori-xarrez, gero eta haur gehiagori ere oso adin txikian ari zaie gertatzen. Zergatik?

*Txano Gorritxo abiatu da basoan barrena. Otso gaiztoa, pago baten atzean gorderik, ikusi eta bat-batean aurrez aurre agertu zaio. Bere asmo maltzurak oraindik guztiz azaldu nahi ez dituela:*

—Egunon, Txanogorritxo! Amonaren etxera noski, bazkarikoak eramatera?

—Ez antigoaleko otso baboa, Amona Benidormen zagok. Martin basomutilarengana noak. Hemen zeramazkiat bokatak eta porrutxo batzuk prestatzeko kostoa. Porrutxo bat hartuta, Martin artista duk-eta txortan. —Otsoaren begiak zabal-zabalik geratu dira: —Arraioa, nola aldatu den ipuina!

Neu ere otsoarekin bat nator: Goitik behera aldatu da ipuina.

#### **4. NOLA ALDATU DEN KULTURA. KEZKA ADITUEN ARTEAN**

Gure kultura, Mendebaldeko gizarte garatuetan, aldatu egin da. Kulturari antropologoek *isilkako hizkuntza* deitu izan diote. Esplicituki adierazi gabe, gerok konturatu gabe, geure jarrera askoren oinarrian dauden osagaiak kultura dira. Mugitzeko erak, bat-batean erreakzionatzeko tankerak, jateko moduak, komunikatzekoak, bizitzaren gertakari ugariren aurreko erantzunak (heriotzak, gaixotasunak, festak...), hizkuntzaren doinuak eta sonoritateak, guk natural-unibertsalak direla uste dugun zenbait kontu, kulturalak dira eta, azken urteetan, abiadura handian aldatzen hasi dira, aldatetarik noraino iritsiko diren ez dakigularik. Aldiz, gure oinarri intelektual eta psikologikoak, mundua ulertzeko erak ez dira horren azkar egokitzen, askozaz motelagoak dira.

Ezin irudika dezakegu urte gutxiren buruan bizitzaren ildo nagusiak zenbat aldatuko diren oraindik. Direla berrogeita hamar urte, zer esanik ez orain dela ehun urte, inork ezin zuen imajinatu gaurko eguneroko bizimodua nolakoa izango zen. Asmazio berriek bizitzeko erak aldatu dituzte eta bizitzeko erak aldatzearekin batera munduari buruz pertzepzioa ere kanbiatu egin da<sup>1</sup>.

Eta haurrak hezteko kontuan? Horrenbeste edo gehiago. Gaur egun oso egoera nahasia bizi dugu gurasook eta hezitzaileok gure inguruan. Hiritar guztiok, baina beharbada gurasook areago. Mende askotan zehar mamitutako kultura, hitzaren zentzu zabalean, goitik behera aldatu da azken urteetan aurrerapen tekniko zientifikoak direla eta. Eta jarraitzen du aldatzen. Ondorioz, galduta gaude haur eta gazteen heziketaren alorrean. Gizarteak ez digu arau garbirik markatzen. Ez dakigu zein ipuin kontatu behar diegun.

Ondorioak larriak dira. Gurasoak eta irakasleak, hemen bezala, milaka ikastalditara joaten dira, guraso edo irakasle on-onak izan nahiz, gehiago estresatzen dira, eta inozkerian edo naturaltasun faltan erortzen dira sarri.

Kontu asko aldatzen ari dira haurren inguruan: egun hauetakoa da egunkarietako berria, pubertaroa aurreratua omen datorkie gero eta haur gehiagori (berezik, neskatoei). Diotenez, gizentasunaren ondorioz. Nik aspaldi sentitu nuen eta aldarrikatu: haurtzaroa goizegi amaitzen da egun. Estimulu asko, inguruan gehiegi beharbada, azkarregi heltzen dira (esateko modua besterik ez da). Hara non, hilabete honetan EHUKo Udako ikastaroetan emandako ikastaldi baten harira, Ezosi Arizaga adituak haxe bera aipatzen duen: "*Gauzak egiteko inizatibak haurraren barrenetik irten behar du; kanpotik ezarritako estimulua gehiegizkoak badira, umea nahastu eta prozedura eragotz dezakete*"<sup>2</sup>. Eta jardunaldi bertsuetan parte hartzen zuen beste aditu batek, Teresa Godall-ek, honelako perlak bota zituen kazetariaren galderei erantzunez:

—*¿Por qué es tan importante observar a un bebé?*

—*Es así como descubrimos qué saben hacer y qué necesitan. Estamos tan habituados a pensar que los niños no saben decirnos lo que les pasa, que no les miramos. Pero en el momento en que lo hacemos (...), descubrimos sus personalidades, sus maneras de ser y sus características" (...).*

—*Dejar hacer al niño...*

—*Es fundamental. Y también la actitud del adulto: volver a encontrar la propia paz y el conocimiento con mucha paciencia, respeto y confianza en el propio niño, que es el que tiene las claves*<sup>3</sup>.

Joandako eguneko Berria egunkariaren aipamen txikia irakurriko dizuet: "TELEBISTAK HAURREI ARRETA GUTXI JARTZEA ERAGITEN DIE. Iowako (AEB) Unibertsitateko ikerketa baten arabera, telebistari begira ordu asko pasatzeak arreta gutxiago jartzea eragin dezake haurrengan..."<sup>4</sup>. Ba handik egun gutxitara, egunkari bereko Mantangorri gehigarrian hainbat umeri galdetzen zieten telebista aurrean zenbat ordu pasatzen zituzten eta gutxienekoak *hiru ordu* erantzuten zuen. Beste batzuk bost edo sei. Atera kontuak.

## 5. TRADIZIOAREN LAGUNTZA. NOLA?

Kinka honetan, tradizioa laguntza paregabea izan daiteke. Ez al da kontradikzioa gure kultura erabat aldatu dela esaten dugunean? Ez ba. Tradizioari erreparatzea ez da atzoko kontu berberak inertziaz eta pentsatu gabe errepikatu beharra. Tradizioa *emaitza* da, aurreko belaunaldien eskarmentuaren ondorioz ikasitakoaren bilduma. Aurretik bizi izan direnen oparia.

Tradizioak balio asko ditu. Balio psikosozilogikoak. Soziedadeari bere buruaren eza-gutzan laguntzen dio, bidean elkarrekin, ez bakarka, joateko sentazioa areagotu egiten du... Adreiluak porlanik gabe ez dira ezer etxe bat egiteko. Horrelakoxea da tradizioa. Baina ez da nahikoa. Ondo ulertu behar da zer den. Tradizioa ez da inertzia. Ezta itsua ere.

*Xebastian Nuarbeko igeltsero fina, nagusiak, langilearen gogoz kontra, sei hilabeterako Sevillara bidali zuen lan egitera. Honek kexa asko egin, baina, halabeharrez, onartu egin zuen. Handik itzulitakoan, ugazabak Sevillan nola pasatu duen galdetu eta Xebastianek:*

*—Oye pues extupendamente he pasau, e. Joe, chicas guapas tamién ya tienes allí y bonito es pues Sevilla, con un catedral grande y... Pero vengo dexcontento con una cosa... Exte jodido azento andaluz que me se ha pegau.*

Xebastianen pasadizoak bi burutapen ekartzen dizkit. Batetik, aditasunarena, Xebastianek belarria tente duela eta berehala antzeman diola bere hizketa moduaren aldaketa txiki ñimiñoari. Bestetik, Xebastianek ez du aldaketarik maite. Bizitza bera da aldaketa ordea. Hori ere tradizioak erakusten digu: etengabe aldatzen ari direla bizi-moduak eta ona izan daitekeela aldatzea. Baina tente egon beharra dagoela, aldaketa ere txarrerako izan daitekeelako.

Beraz, hauexek dira egin behar ditugun galderak: zer aldatu da haurtzaroan aurreko kulturaren ondoan, zer umearen hizkuntzaren ikasketari buruzko jarrera kulturaletan? Eta, batez ere, aldaketa horietatik zein onartzea komeni da eta zein berbideratzeko ahalegina egin beharko dugu?

Erantzunak ez dira teorikoak izan behar, ezta bat-batean emandakoak ere. Tankera horretako kinka batean, galderak dira inportanteenak. Galderen garrantziaz jabetzen garenean, pixkana, denon artean, eta bereziki gizarte-eragileak, erantzuten hasiko gara. Horren inguruko kezka eta arta eremu zabaletan ereitea da oraingo euskaltzaleen eginkizuna.

Uste dut Xebastianena bezalako arreta zorrotza jarri behar dugula, baina berak ez bezala, onartu behar ditugula aldaketak, betiere bereizketak eginez.

## 6. TRADIZIOZKO HAUR HIZKERA

Nola bizi ziren haurrak gizatalde zaharretan? Begira, inguruari begira, eta bere artean jolasean. Garaien eta egoeren arabera, baina, oro har, koskortu artean ez zuten egin-kizun zehatzik izaten. Orain, aldiz, egia esanda, ez ditugu bakean uzten.

Haurrak aldi berean bost hizkuntza ikas ditzakeela esaten digute. Ikasteko ahalmen *neurrigabe* hori berdin-berdin erabil daiteke jolasean ikasteko, zeruari edo itsasoari begiratzen ikasteko, adiskideen begietan eta azaletan irakurtzeko edo ezerezean ego-ten ikasteko. Horiek ere oso kontu garrantzitsuak dira.

Nire ustez, tradizioak erakusten digun aurrenekoa hauxe da: *utz ditzagun bakean haur-rrak*. Ez dezagun beren martxa artifizialki bizkortu, begira dezatela eta guk ere begira diezaiegun adituak esan diguten bezalaxe. Arlo guztietan, baita hizkuntzarenean ere. Gehiegikeriak adimena bera ere aztoratzen baitu. Ikastea ez da inoiz eta bakarrik kontu intelektuala, emozionala ere izan behar du. Biak batera ez badoaz, amildegitik behera joango gara.

Bestetik, hizkuntza guztiek, mendeetan zehar, tradizioz haurrekin hitz egiteko modu berezia garatu izan dute. Hizkuntzak sistema oso konplexuak direnez, bakoitzarekin sendoki lotuta dagoen kulturak bere bide pedagogikoak prestatu dituen modu berean, hizkuntzak ere bereak asmatu ditu, eta historia luzearen galbahetik pasatu, haurrei hizkuntzaren oparotasuna pixkana eta era egokian eskaintzeko.

Hizkuntza guztiak haurrei bizitzako lehenengo urteetan nola hitz egin behar zaien era-bakitzerakoan, sakoneko abiapuntu hauetan oinarritu dira:

1) Mendeetako saiakerek erakutsitako hizkuntza beraren zailtasun mailaketan: ondo imitatu ahal izateko aurrenik garbiro berezi behar du hiztungaiarentzat zer den zail eta zer erraz. Ondo probatutako eta bere dohainak ederki frogatutako pedagogian beraz.

2) Hizkuntzarekin lotuta dagoen estetika zentzuan: berezko eufonia eta kakofoniaren ezagutza konturatu gabe ematen zaio haurrari lehenengo unetik.

3) Hau dena ez da molde gogor eta bakarrean ematen. Haurra jaio aurretik eta jaio-berritan, sehaska abestietako formula ia eufonia hutsetan hasten bada ere, pixkana garatuz eta aberastuz joaten da bere gorputzaren eta inguruaren ezagutza zehatz samarra eskaini arte.

Euskaraz ere, beste hizkuntza bizietan bezala, haur hizkera honen tradizio ederra dago. Baina galtzen ari da, neurri handi batean, besteak beste, etxeko giroan erabiltzen den hizkera batez ari garelako. Eta askotan etxean daudenek ezin dutelako haurtxo hori txi-kitandik euskaldundu beraiek ere euskaldun berriak direlako... edo erdaldunak.

Hona euskaraz haur txikiekin hitz egiterakoan kontuan hartzen diren arau batzuk:

1) Haurrari aspalditik (soiltze aldera ziur aski) *zuka* egiten zaio. Gaur egun zenbait lekutan zabaldu diren *hiketa* ohiturak bestelakoak izan arren, tradizioan zazpi-zortzi urte arte (beti ere haurraren arabera), ez da erabili izan. Neska-mutil koskorrentzat utzi izan da.

2) Helduei pertsona gramatikalen banaketa oso kontzeptu erraza eta objektiboa iruditzen bazaigu ere, ez da horrela. Horregatik, haur txikitxoek hizkuntzan bi pertsona besterik ez da izaten: haurra bera eta beste guztia. Eta maiz haurra bera ere hirugarren pertsona gisan hartzen da. Nork egin du hau? Osabak egin du? (Eta hizketan osaba ari da) Anttonek egin du? (Eta Antton haurra da).

3) Lexiko bilduma batzuk eginda daude eta garbi azaltzen dute haurraren inguruko munduari dagozkiola hizkuntzak horretarako sortutako hitz bereziak. Eguneroko haur normal baten jardunarekin lotzen dira hitz berezi horiek: *apunbala*, *alolo*, *apatx*, *txitxi*, *kika*, *zintz egin*... Ondo egindako kontzeptu aukeraketa dago hizkera berezi horren oinarrian.

4) Kontzeptuez gainera, hitz horien formari dagokionean, *zailtasun mailaketa garbia dago*: gehienak bi silabakoak edo silaba bakarrekoak dira (gutxi batzuk hirukoak) eta maiz onomatopeien antzeko errepikapenak egiten dituzte (taka-taka, koko-koko...). Fonemen aukeraketa modu egokian egin da. Bokalak aukeratzen dira hiruko sisteman (a-e-o edo a-i-u, inoiz ez batera, esaterako, a-e-i). Eta kontsonanteetan, nabarmenenak erabiltzeaz gainera, (leherkariak batez ere), gehienetan silaba beraren errepikapenez osatzen da hitza (papa, pipi, pupu...).

Hori guztia mendeetan zehar probatu, saiatu eta emaitza onak izan dituen bidea izan da, hizkuntza bere osotasunean irakasteko. Eta alderdi horretan aipatu nahi dut hizkuntza bakoitzak bere eufonia/kakofonia zentzua duela, beste hizkuntzengandik bereiz dezakeena. Esaterako, euskaldunentzako oso eufonikoa da eta normala hitz baten amaieran "K" izatea (*Alde hortik!*). Eta espainiar belarriei min ematen die. Espainolez, lizentzia poetiko normalak dira sinalefa eta dialefa. Euskaldunontzat, zenbait kasutan, behintzat, oso gogor gertatzen zaizkigu: *Olentzero*... *pipa hortzetan duela* (ue hori diptongo gisan esanda). Euskarak horretarako berezko bidea du: *dula*. Euskarak ere lizentziak hartzen ditu silaba kontaktetan, komeni zaionean. Baina bere moduan.

Bustidurak ere (ttipi-ttapa...) umeetatik lantzen dira euskal tradizioan. Eta ez luzatzeagatik orain zehaztuko ez ditudan beste arlo askotxo.

## 7. POXPOLINA MUGIMENDUA

Oso ezezagun gertatzen da oraindik talde horrek egindako lana. Niretzat, hunkitu eta sastada eman zidan topaketa izan zen Nemesio Etxanizekin izan nuena. Haren bitartez izan genuen, gure pailazo taldean, Gerra aurreko mugimendu baten berri: *Poxpoliña*<sup>5</sup>. Izen handiak zebiltzan haren atzean: Ramon Laborda, Manuel Lekuona, Joseba Markiegi, Xabier Lizardi, Txomin Jakakortajarena, Nemesio bera... lan ederra orduan egindakoa.

Haiek sinistu zuten euskal haurrekin hizketa ona erabiltzea merezi zuela. Prestatu zituzten gehienak oraindik benetako perlak dira. Adibide labur bat jartzearen, *Xagu txiki* abestia. Zein ezaguna den egun, zein egokia haur txikientzat eta zein atsegina ahoskatzeko. Jatorriz, hala ere, gaztelaniazko abestia da: *Chitón ratón, ratón chitón, no salgas no de tu rincón...* Baina Manuel Lekuonak horren ondo euskaratu zuen, non denok gauden sinistuta euskal abesti jatorra dela. Bide beretik *Jolasean nenbilen ilundu zanean* (*Jugando al escondite en el bosque anocheció*).

Kostata, lortu dut haiek euskaratutako abesti batzuen jatorria argitzea. Adibidez, *Han urrun etxe* pospola Émile-Jacques Dalcrozek<sup>6</sup> egina da, musikaren hezkuntza berriaren sortzaileak. Berarekin ikasi zuen Genevan Joan Llongueres kataluniar musikari famatuak. Honek Dalcrozeren hainbat doinu egokitu zituen eta argitara eman katalanez zein gaztelaniaz. Hortik hartu zuen *Poxpoliña* mugimenduaren inguruan zebilen Joseba Markiegi<sup>7</sup> apaiz debarrak eta euskaratu era ezin egokiagoan. Euskarazko eufoniaren zentzu betea du. Horrexek bihurtzen du abesti hori txikitandik umeen belarrietan euskal sena mami dadin botika egokien.

Talde horrek haurren inguruan egindako lana ongi aztertzea mereziko luke. Nola moldatzen ziren beren artean, zein irizpide erabili zituzten (eskutitzak eta abar geratuko dira nonbaiten) eta baita emaitza bera ere. Hortxe dago ikertzaile fin batentzako aukera.

## 8. GURE PAILAZO TALDEAREN PRAKTIKA

Horregatik gure pailazo taldeko ibilbide diskografikoan haien lanari garrantzia eman diogu eta gure sorkuntzan ere neurri batean eredu izan dira. *Paristik natorren, Ttip eta Ttup, Han urrun etxe pospola, Moro katua, Paradisuko atean, Zapi zuria...* Haiek sortuak, euskaratuak edo nolabait landuak izan dira.

Orain hogeita hemezortzi urte, pailazo abiatu ginenean, gudan euskararekiko kezka zegoen. Luze litzateke xehatzea nolako giroan bizi ginen garai hartan euskararekiko eta, bereziki, euskal antzerki giroan eta haurrentzako arloan. Hutsetik oso gertu. Gure asmoa zerbait erakargarri egitea zen, baina euskararen aldeko zerbait. Ez ginen pailazo hasi pailazoarena egitea gustatzen zitzaigulako, baizik eta euskararen aldeko ekimen gisan.

Ni garaitu horretan Unibertsitatean, Filologia Erromanikoa eta euskara bera ere ikasten



hasi berria nintzen. Beraz, hizkuntzarekiko interesa nuen. Musikaria, txistularia ere banintzen eta herri kulturaren zalea. Horrek denak gure euskara eta abestiak bereziki zaintzera eraman gintuen. Berritu nahi izan genuen, baina harri zaharretan oin hartuta.

Aztertu genituen euskal kanta bilduma guztiak eta gu ere herriz herri abesti zaharrak biltzen ibili ginen. Lan horretatik ondorio batzuk atera genituen eta horiek kontuan hartzen hasi ginen gure jardunean. Euskal Telebistan hasi ginenean, orain hogeita bost urte, arlo horretan are zorrotzagoak izateko zioa sentitu genuen.

Hasiera haietan, euskara batuaren hautua prestatzen ari zen Euskaltzaindia. Gu Euskal Herri osoan barrena genbiltzan (geroago ere telebista programak ere *euskaldun guztiarentzat* prestatu ditugu). Beraz, atseginez eta gogoz onartu genuen baturako bide hura. Baina guretzat arazo handi bat bazuen hasierako euskara batu hark: hotza gertatzen zen. Adierazgarritasuna, espresibitatea, ñabardurak transmititzeko gaitasuna euskalkietan zegoen. Euskara batua idazketarako egokia zen, baina gogorra, egosi gabea ere bai. Gureak beroa behar zuen. Ahozko hizketa zen gure alorra.

Bestetik, gure jarduna jendearen aurrean gertatzen da eta publikoak bat-batean ulertu behar du ziria edo gag-a non dagoen. Euskara batua orduan euskaldun zahar gehienei ulergaitz agertzen zitzaien.

Erabaki behar izan genuen: euskara batua onartu, betiere ulergarritasunari lehentasuna eman. Hizkuntza ahalik eta garbiena, ahalik eta batuena erabiliko genuen, erdarakadarik gabe, baina ahal genuen neurrian (geroago ikusi izan dugu batzuetan erdarakada bera gag bat dela. Hori beti neurritz erabili nahi izan dugu: *portzierto*, a *faxti-diarxe*...) bat-bateko ulermenari kalterik egin gabe. Eta bestetik, pertsonaien artean ere, espresibitate kanon desberdinak ezarri genituen.

Gure banaketan, pertsonaia batek ez zuen arazorik: Txiribitonek (hasieran *Kaxakamelon* zen) turutat hitz egiten baitzuen. Ume batzuk diotenez, "*mutu hitz egiten du*". Beste bien artean, halako banaketa erabaki genuen. Beste alorretan bezala, hizketa kontuetan ere Txirri *zuzena* izango zen, batzuetan *hiperzuzena*. Eta Mirriri ezarri genion beste erregistro berezia. Ume hizkuntzatik gertu ibiltzea nahi genuen, *xelebre* izatea ere bai... Horixe bururatu zitzaigun: heldu ez den pertsonaia izatea. Beraz, ahoskera aldetik ere euskal tradizioan hurrei hitz egiteko manera berezia karikatuzatu egin genuen: *bustidurak* eta *txistukariak* nonahi. Arrakasta izan duela ez dago ukatzerik. Tradizioak balio du arrakastarako beraz.

Gure abesti gehienetan, *Poxpolina* taldeko lagun haiek landutako bideak errespetatu eta jorratu ditugu. Uste dut gaur ia berrogei urtetako gure lan diskografikoaren emaitzari begirada ematen dionak dozenaka abesti aurkituko dituela ahoskera ona eta hizkuntzaren zentzu betearen umeengan pizteko egokiak. Ikastolen Elkarteak erreparatu dio horri, nonbait eta, gure atseginerako, laster batean oso lan ederra argitaratzeko asmoa du gure erreperatorioko bost abestiren inguruan<sup>8</sup>.

## 9. XXI. MENDEAREN HASIERAN

Egungo mundua zurrumbilo baten antzekoa da. Zenbat itaun gure erantzunen zain XXI. mendearen hasiera honetan. Etorkinen uholdearen aurrean prest al gaude? Jakingo al dugu indar berritzailetzat hartzen eta gure gizarte esklerotikoaren botika gisan onartzen? Edo hainbestetan errepikatu den erantzun atzerakoira joko dugu. Lortuko al dugu datozen garaietan mundua justuagoa izatea eta horrekin batera gure gizartearen maila kulturala eta ekonomikoa mantentzea? Erdietsiko al dugu jendeak zoriontsuagoak izatea? Eta hori dena gure artean eus-ka-raz e-re behinik behin gertatzea.

Zaila dago kontua. Adimena behar-beharrezkoa izango da eta hitz egiteko gaitasun handia ere bai. Inozokeriaz ez dugu ezer lortuko.

Andoni Egaña ikasle izateko zortea izan nuen. Berak honela kontatzen du garai hartako anekdotatxo bat:

*"Larramendin Piter Ansorenarekin egin nuen topo (...). Euskara eta hizkuntza edo literatura irakatsi zizkigun.*

*—Euskara maite behar al da? —galdetu zigun ezustean, gelara azaldu zen lehen egunean.*

*Baietz erantzun genion aho batez.. Ea, errepikatzeko, berak. Eta guk baietz berriz ere, ausartenek ozenen.*

*—Ez bada! —berak.*

*Gu mutu, hanka-punttetan jarri eta norbaiti lepa-samarretik heldu zion arte.*

*—Maite, andregaita maite behar duk, kalamidadea! Euskara, erabili!"<sup>9</sup>*

Ez dut gogoan hori gertatu zenik, baina Andonik kontatu badu, ziur gertatu zela. Gaur esaldi hori osatu beharrean nago: euskara maite ez badugu, ez dugu erabiliko. Eta maitasun hori afektiboa behar du, ez intelektuala, txikitandik landua. Tradizioak ere erakutsi digu, ondo komunikatu ahal izateko, ez dela dena batera esan behar. Andoniren taldeko gazte haiek garaitsu hartan hori esatea zuten komenigarri agian. Egun beste hau azpimarratzea komeni zaigu: lan dezagun gure haurrengan txikitandik euskararekiko maitasun lotura. Aditasunez, arretaz eta lasaikiro.

Sara gure iloba da, Txinatik etorria. Hemen urtebete egin zuenean, anaia eta emaztea Sararekin Madrila joan ziren, Txinatik alabak ekarritako beste guraso berrien arteko bilkura batera. Taxian zihoazela —topikoa bada ere, Madrilgo taxizalea da ustez, ezer ikasi gabe, dena dakiena— euskaraz ari ziren hirurak eta taxizaleak, guztiz sinistuta, honela esan omen zien:

-¡Vaya suerte que tiene esta niña, que ustedes han aprendido a hablar en chino!

Ez gaitezen Madrilgo taxizale topikoaren antzekoak izan. Aditasuna behar dugu, arreta handia, konturatu gabe merkantzia ustelik onar ez dezagun.

1 - Ideia hau oso garrantzitsua da. Ipuina guztiz aldatu da. Nola bizitzen da etxe batean non ez dagoen argindarrrik (ez igogailurik, ez hozkailurik, ez garbigailurik, ez telebista-irratirik, ez telefonorik, ez berogailurik...), ezta urik ere, baina bai zomorroak (zimitz, labezomorro...) eta piztia handiagoak (saguak, arratoiak...), eta batera bizi diren pertsona asko belaunaldi desberdinetakoak (aitona-monak, izeba neskezaharren bat, ume mordoak, agian neska...)? Emakumezkoek beren gorputzaren jabegoaz aurreratutako guztia oso berria da (haurdun noiz geratu erabaki ahal izatea). Lanak egiteko moduak nola aldatu diren (makinaria berriak eta mugikortasuna), dibertsio moduak, osasuna eta bizitza kalitate onez luzatzeko aukera.

2 - *Berria* egunkarian Samara Veltex egindako elkarrizketa. 2010eko uztailaren 8a, osteguna. 13 or.

3 - *Diario Vasco*. 2010eko uztailaren 7a, asteazkena. 9 or. Cristina Turrau egindako elkarrizketa.

4 - *Berria*. 2010eko uztailaren 15a. osteguna. 31 or.

5 - Euzko Alderdi Jeltzaleko hainbat kidek abian jarritako ekimena zen *Poxpoliña*. Ramon Laborda apaiz bergararrak izan zuen antolatzaile lan handiena. Baina bere kolaboratzaileen artean lehenengo euskal eskoletako andereño hainbat bazebiltzan, baita abesti eta dantzen alorrean garai hartako laguntzailerik onenak ere. Donostiako Kursoal antzokiaren azpian izan zuen egoitza; urte gutxi iraun bazuen ere, asko mugitu ziren. Liburuxka polit bat ere eman zuten argitara hogeita hamahiru abestiren testuekin.

6 - Émile-Jacques Dalcroze (1865-1950)

7 - Joseba Markiegi (1894?-1936). Apaiz hau 1936ko urrian, Jose Joakin Arin erretorearekin eta Leonardo Guridi apaiz laguntzailearekin batera, Arrasaten atxilotu zituzten eta, egun gutxitara, Oiartzungo kanposantu ondoan fusilatu frantziarrek.

8 - Dagoeneko, argitara emanda dago *Zootropo, ipuin animatuak* izenez. Bost abesti-ipoin hauek bildu dituzte: *Aitonamonak txapeldun, Asto lehoia, Itsua eta sastrea, Moro katua eta Ttip eta Ttup*. Paperezko bost ipuin dira eta DVD bat marrazki bizidunetzat osatua.

9 - Egaña, Andoni eta Sarasua, Jon. *Zozoak beleari*. Alberdania argitaletxea. Donostia, 1997. 89. or.